



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BERRIZ IREKIKO DA URDULIZKO METRO-GELTOKIA

- **21 milioi euroko inbertsioa egin eta 24 hilabeteko egikaritze-epea burutu ondoren, behin betiko kendu da metro-sarearen azken trenbide-pasagunea.**
- **Guztira, 543 metroko luzerako tartea lurperatu da linean, geltokia barne, zeinak nasa bakarra daukan bi trenbideetarako, 6 metroko zabalerakoa.**
- **Urdulizko biztanleek lurzoru publikoko 6.000 metro karratu irabazi dituzte. Sopelaren eta Plentziaren bide-trazadurak ere hobetu dira obrek utzitako esparruari esker.**
- **Gaur kenduko da Sopela eta Plentzia lotu dituen autobus-zerbitzua, 1.680.000 euroko gastua ekarri duena.**

Bilbo, 2017ko apirilaren 10a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) gaur berrabiarazi du Urdulizko metro-geltokiko zerbitzua. Bide-trazadura berria du, eta horren bidez behin betiko kendu da trenbide-pasagunea, metro-sarearen azkenena zena. Hain zuzen, horixe zen proiektuaren abiapuntua eta xedea, eta gastua 21 milioi eurokoa izan da. Merezki izan du 24 hilabete itxarroteak, haren bidez bete baita Uribe Kostako biztanleek egindako eskaera: metroaren 1. linea udalerrian lurperatzea eta hesi historikoak behin betiko jaistea. Horri esker, lurzoru publikoko 6.000 metro karratu irabazi dituzte erabilera eta luperketarako. Gaur geltokia berriz abiatzean, behin betiko amaituko da Plentzia eta Sopelako geltokiak lotzeko erabili den autobus-zerbitzua, obrek iraun duten 24 hilabeteetan martxan egon dena. 1.680.000 euro bideratu dira autobusetara.

Geltokia berriz irekitzeko ekitaldia egin da, eta bertan izan dira Bizkaiko Ahaldu Nagusia Unai Rementeria; Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua Arantza Tapia; Urdulizko alkatea Javier Bilbao, Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuordea Antonio Aiz; Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko diputatua Vicente Reyes; BGPko zuzendari kudeatzailea Manu Tejada; Metro Bilbaoko zuzendari nagusia Eneko Arruebarrena; ETSeko zuzendari nagusia, Aitor Garitano; Sopelako Alkateak, Gontzal Hermosilla; eta Plentziko Alkatearen ordez, Aizea Agiriano.

Lurperatze-lanak Bilbo-Plentzia linearen 27+284 eta 27+980 KPn artean gauzatu dira, eta osorik lurperatu da 27+372 eta 27+915 KPn artean. Hots, 543 metroko luzera estali da linearen tarte horretan, % 2,7ko maldan gehienez, geltokia barne, zeinak erdiko



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

nasa bakarria duen bi trenbideetarako, 6 metroko zabalerakoa.

Geltoki berriaren ezaugarriak

Urdulizko geltoki berria aurrekoaren kokapen bera du; baina, orain, erabat lurperatuta dago; bestalde, igogailua dauka eta kanpoko fosteritotik sartzen da bertara. Horretarako, tunel faltsu bat egin da, geltoki baten ohiko toki eta instalazioak jartzea ahalbidetu duena, eta erdiko nasa bakarria utzi da bi trenbideetarako, 6 metroko zabalerakoa. Geltokia 172 metro luze da, eta 6 zutabe dauzka, bankuak, paperontziak, publizitate-euskarriak...

Geltokirako sarrera berorren gainean sortu den hiri-espazioaren kota berean dago. Esparru horrek estaltzen du trenbidearen igarobideak orain arte utzitako "orbaina" udalerraren hirigunean.

Urdulizko udalerrriak garapenerako aukera gehiago ditu orain

Gaurtik aurrera, Urdulizek garapenerako hainbat aukera izango ditu: aisialdi-gune seguru bat, lurpeko geltoki irisgarri bat, mugikortasun hobea trenbide-trazaduraren inguruan, pertsonentzako eta ibilgailuentzako segurtasun handiagoa...

Ildo horretan, BGPk hitzarmena izenpetu du tokiko udalarekin, eta 400.000 euro emango dizkio lurperatze-lanen ondorioz sortutako azalera urbanizatzeko.

Hobekuntzak Plentziako eta Sopelako gunen mugakideetan

Sopelaren eta Plentziaren arteko metro-zerbitzua etenik egon dela baliatuz, hainbat hobekuntza-lan egin dira Urduliz–Plentzia eta Urduliz–Sopela tarteen.

Zehazkiago, Plentzian honako lan hauek egin dira: eraikina birgaitu da; alboko sarrera berria eraiki da egungoaren ordean, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko; eta seinaleztapena hobetu da, trenak bata bestearen jarraian ustiatzeko edo bi tren bata bestearen atzetik irten ahal izateko, elkarren arteko tarte bat utzita, beharrezkotzat jotzen denean (hondartza-sasoia, jaiak...).

Bestalde, Sopelan, BGPk *bretelle* bat jarri du, hau da, trenak egungo geltokiaren atzetik desbideratzeko aukera ematen duen trenbideko gailua. Horri esker, Metro Bilbaoren zerbitzuaren segurtasuna eta eraginkortasuna hobetu dira.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Datu jakingarriak

- Inbertsio ekonomikoa (obra zibila): 21 milioi euro.
- Egikaritze-epea: 24 hilabete.
- Lurperatutako tartea: 543 metroko luzera.
- Gehienezko malda: % 2,7.
- Hondeaketa-bolumena: 99.976 tn.
- Hormigoi-bolumena: 16.727,76 metro kubiko.
- Muntatutako trabesa-kopurua: 1.717 unitate.
- Altzairu-kopurua: 1.264.092 kilo.
- Jarritako errailaren luzera: 2.759,9 metro.
- Erabilera publikorako hutsik geratu den azalera: 6.000 metro karratu.
- Urduliz-Plentzia trenbideko jarduketak: 949.581 euro.
- Sopelako jarduketak (trenbidea, katenaria, komunikazioak...): 1.170.284 euro.
- Plentziako jarduketak (autobus-geltokia, Plentziako geltokia...): 295.926 euro.

Erakunde publiko parte-hartzaileak

-Eusko Jurlaritzaz:

Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren eta Garapen Azpiegitura Sailak azpiegiturarako obrak finantzatu ditu, bai eta obraren % 50 ere, Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundearen bitartez.

-Bizkaiko Foru Aldundia:

obraren gainerako % 50a finantzatu du.

-Bizkaiko Garraio Partzuergoa (BGP):

Erakunde horren ardura izan da tarteetan eta geltokietan behar den gainegitura hornitzea ("ticketing" sistema, komunikazioak, aginte postua, altzariak etab.), tarte berrien ustiapena gauzatu ahal izateko. Berak idatzi, lizitatu, adjudikatu eta zuzendu ditu obrak. BGPk Eusko Jurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpen berdinei esker finantzatu ditu obrak.

-Euskal Trenbide Sarea (ETS):

Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren eta Garapen Azpiegitura Sailaren menpeko erakunde publiko hori arduratu da azpiegituraren eta sarbide mekanizatuen proiektuak idazteaz eta lan horiek zuzentzeaz.

- Metro Bilbao:

Erakundeak zerbitzua ustiatuko du obra amaitutakoan.